EXPLICACIÓN DE LOS CONCEPTOS DE GASTOS



Bi eragiketa mota bereizten dira, eragiketa ez-finantzarioak (1etik 7ra arteko gastu kapituluak) eta finantzarioak (8. eta 9. gastu kapituluak), eta lehenengoak bitan banatzen dira: arruntak (1etik 5era arteko gastu kapituluak) eta kapital eragiketak (6. eta 7. kapituluak).

Eranskin honek garatzen du Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren organismo autonomoen gastuen sailkapen ekonomikoak duen egitura. Orobat, kapitulu, artikulua, kontzeptu eta azpikontzeptu bakoitzaren ondoren, zerrendatzen ditu haietako bakoitzari egotzi dakizkiokeen gastu motak, bakoitzari dagokion xehetasun mailarekin.

Kodeak izaera itxia du, eta nahitaezkoa da kapitulu, artikulua, kontzeptu eta azpikontzeptu mailan.

Kapitulu, artikulua, kontzeptu eta azpikontzeptu bakoitzari aplikagarri zaizkion gastuak jarraian deskribatutakoak dira, baina kontuan izanik azpikontzeptuak azpipartidatan banatu daitezkeela, hala komeni bada programak hobeto kudeatzeko eta kredituak egoki kontabilizatu eta administratzeko.

A. ERAGIKETA EZ-FINANZARIOAK

A.1 – ERAGIKETA ARRUNTAK

Gastuen aurrekontuak eragiketa arrunten gastuak sailkatzen ditu 1etik 5era bitarteko kapituluetan, hauen artean bereiziz: zerbitzuen funtzionamendu gastuak (langileria eta ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak), interesen gastuak, transferentzia arruntak, eta kontingentzia eta bestelako ezustekoetarako funtsa.

I. KAPITULUA: LANGILERIA GASTUAK

Kapitulu honi gastu hauek aplikatuko zaizkio:

- Beren zerbitzuak egiteagatik, langileei ordaintzen zaizkien edozein motatako ordainsari eta kalte-ordainak, diruzkoak zein gauzazkoak.
- Gizarte Segurantzaren nahitaezko kotizazioak.
- Gizarte prestazioak, eta haien barruan, familia zamengatik ordaintzen diren pentsio eta zenbateko guztiak.

Se distinguen las operaciones no financieras (capítulos de gasto 1 a 7) de las financieras (capítulos de gasto 8 y 9), subdividiéndose las primeras en operaciones corrientes (capítulos de gasto 1 a 5) y de capital (capítulos 6 y 7).

El presente anexo desarrolla la estructura de la clasificación económica de los gastos de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de sus organismos autónomos, relacionando a continuación de cada capítulo, artículo, concepto y subconcepto las clases de gastos imputables a los mismos, con el grado de detalle apropiado para cada uno de ellos.

El código tiene carácter cerrado y obligatorio en sus niveles de capítulo, artículo, concepto y subconcepto.

Los gastos aplicables a cada capítulo, artículo, concepto y subconcepto son los que se describen a continuación teniendo en cuenta que los subconceptos se pueden desglosar en subpartidas, según sea conveniente para la mejor gestión de los programas y para la adecuada contabilización y administración de los créditos.

A. OPERACIONES NO FINANCIERAS

A.1 – OPERACIONES CORRIENTES

El Presupuesto de gastos clasifica en sus Capítulos 1 al 5 los gastos por operaciones corrientes, separando los gastos de funcionamiento de los servicios (personal y gastos en bienes corrientes y servicios), los de intereses, las transferencias corrientes y el fondo de contingencia y otros imprevistos.

CAPÍTULO I: GASTOS DE PERSONAL

Se aplicarán a este capítulo los gastos siguientes:

- Todo tipo de retribuciones e indemnizaciones, en dinero y en especie a satisfacer al personal que presta sus servicios.
- Cotizaciones obligatorias a la Seguridad Social.
- Prestaciones sociales, que comprenden toda clase de pensiones y remuneraciones a conceder en razón de las cargas familiares.



– Indarrean dauden erabakiak eta xedapenak betez egiten diren gastu sozialak.

10. ARTIKULUA – GOI KARGUAK.

100. kontzeptua – Goi karguen oinarritzko ordainsariak eta bestelako ordainketak.

Goi karguen oinarritzko ordainsariak (soldata, aparteko pagak) eta bidezkoak diren bestelako ordainketak hartzen ditu, baita kargua dela-eta sortzen diren ordezkartza-gastuak eta gizarte arretakoak konpentsatzekoak ere.

11. ARTIKULUA – BEHIN-BEHINEKO LANGILEAK.

110. kontzeptua – Behin-behineko langileen oinarritzko ordainsariak eta bestelako ordainketak.

Honen barruan sartzen dira diputatu nagusiak eta foru diputatuak, indarrean dauden xedapenen arabera, izendatutako aholkulari eta behin-behineko beste langileei egiten zaizkien ordainketak. Enplegatu horiek kargugabeturik geratzen dira automatikoki, izendatu dituen agintariak kargua uzten duenean. Kontzeptu honi egotziko zaizkio departamentuetako zuzendarien ordainsariak eta diputatuen idazkariak.

12. ARTIKULUA – FUNTZIONARIOAK.

120. kontzeptua – Funtzionarioen oinarritzko ordainsariak.

Kontzeptu honen kargura ordainduko dira langile mota honi araudiaren arabera dagozkion oinarritzko ordainsariak (soldatak, hirurtekoak).

121. kontzeptua – Funtzionarioen ordainsari osagarriak.

Lanpostuko osagarria, osagarri espezifikoa eta osagarri diren bestelako ordainsariak ordaintzeko erabiltzen diren kredituak.

121.01. azpikontzeptua – Lanpostuko osagarria.

– Gastos de naturaleza social realizados en cumplimiento de acuerdos y disposiciones vigentes.

ARTÍCULO 10 – ALTOS CARGOS.

Concepto 100 – Retribuciones básicas y otras remuneraciones. Altos cargos.

Comprende las retribuciones básicas de las y los altos cargos (sueldo, pagas extraordinarias) y otras remuneraciones que sean procedentes, incluidas las de carácter compensatorio por gastos de representación y atenciones sociales ocasionadas en razón del cargo.

ARTÍCULO 11 – PERSONAL EVENTUAL.

Concepto 110 – Retribuciones básicas y otras remuneraciones. Personal eventual.

Comprende el conjunto de remuneraciones satisfechas al personal asesor y otro personal eventual nombrado por el Diputado General y diputados y diputadas forales, de acuerdo con las disposiciones vigentes y que cesan automáticamente cuando lo hace la autoridad que efectuó el nombramiento. A este concepto se imputarán las retribuciones de directores y directoras de los departamentos y de secretarios y secretarias de diputados y diputadas.

ARTÍCULO 12 – PERSONAL FUNCIONARIO.

Concepto 120 – Retribuciones básicas. Personal funcionario.

Con cargo a este concepto se pagará las retribuciones básicas que correspondan a este personal según la normativa vigente. (sueldo, trienios).

Concepto 121 – Retribuciones complementarias. Personal funcionario.

Créditos destinados a satisfacer el complemento de destino, complemento específico, y otras retribuciones que tengan el carácter de complementarias.

Subconcepto 121.01 – Complemento de destino.

121.02. azpikontzeptua – Osagarri espezifikoa.

Subconcepto 121.02 – Complemento específico.

121.03. azpikontzeptua – Produktibitatea.

Subconcepto 121.03 – Productividad.

121.04. azpikontzeptua – Plusak eta bestelako kontzeptuak.

Subconcepto 121.04 – Pluses y otros conceptos.

13. ARTIKULUA – LAN KONTRATUDUNAK.

ARTÍCULO 13 – PERSONAL LABORAL.

130. kontzeptua – Kontratupeko langile finkoak.

Concepto 130 – Laboral fijo.

Hitzarmen kolektiboengatik edo aplikagarri zaizkien arau laboralengatik kontratupeko langile finkoei ordaindu behar zaizkien era guztietako ordainsariak (oinarrizkoak, osagarriak, etab...), baita kalte-ordainak ere. Ez dira artikulu honetan sartzen honako hauek: lan ordutegiaren barruan uniformea eraman behar duten langileen jantziak ordaintzeko kredituak, bidaietarako dietak eta lokomozio gastuak. Horrelakoetan, horiei dagozkien kredituak 2. kapituluari sartu behar dira (ondasunen eta zerbiztuen gastu arruntak).

Toda clase de retribuciones, básicas, complementarias, etc. así como las indemnizaciones a satisfacer al personal laboral en virtud de los convenios colectivos o normas laborales que le sean de aplicación. No se incluirán en este artículo los créditos destinados a vestuario del personal laboral al que se impone el uso de uniforme durante el horario de servicio, ni las dietas de viajes y gastos de locomoción. En estos casos, los créditos correspondientes deben incluirse en el capítulo 2 «Gastos corrientes en bienes y servicios».

130.01. azpikontzeptua – Kontratupeko langile finkoen oinarrizko ordainsariak.

Subconcepto 130.01 – Retribuciones básicas. Laboral fijo.

130.02. azpikontzeptua – Kontratupeko langile finkoen bestelako lansariak.

Subconcepto 130.02 – Otras remuneraciones. Laboral fijo.

131. kontzeptua – Behin-behineko lan kontratudunak.

Concepto 131 – Laboral eventual.

Behin-behineko lan kontratudunei araudiaren arabera dagozkien ordainsariak sartzen dira kontzeptu honetan.

Se incluyen en este concepto las remuneraciones que correspondan al personal laboral eventual, de acuerdo con la normativa que le sea de aplicación

14. ARTIKULUA – BESTE LANGILE BATZUK.

ARTÍCULO 14 – OTRO PERSONAL.

140. kontzeptua – Beste langile batzuk.

Concepto 140 – Otro personal.

Kontzeptu honi egotziko zaizkio kapitulu honetako beste kontzeptuetan sartzen ez diren langileen ordainsariak. Hor ez dira sartzen bitarteko funtzionarioen ordainsariei aurre egiteko kredituak, karrerako funtzionarioen plantillan hutsik geratutako plazen zuzkidura libreen kargura jasoko dituztelako beren ordainsariak.

Se imputarán a este concepto las retribuciones del personal que no tengan cabida en el resto de los conceptos de este capítulo. No incluye los créditos destinados a retribuir a personal funcionario de empleo interino, que deberán percibir sus emolumentos con cargo a dotaciones libres por vacantes no cubiertas en las plantillas del personal funcionario de carrera.

15. ARTIKULUA - GAUZAZKO ORDAINSARIAK.

ARTÍCULO 15 – RETRIBUCIONES EN ESPECIE.

150. kontzeptua – Pentsio planen aldeko kontribuzioak.

Concepto 150 – Contribuciones a planes de pensiones.



Kontzeptu honen kargura jasotzen dira Gipuzkoako Foru Aldundiko edo haren organismo autonomoetako langileen pensio planei egiten zaizkien kontribuzioak.

159. kontzeptua – Gauzako beste ordainsari batzuk.

Langileei gauza bidezko ordainsari jakin batzuk ordaintzeko bideratutako kredituak (etxebizitza, etxebizitzaren funtzionamendu gastuak, garraiorako txartelak, jantzien kalte-ordainak bidezkoak direnean, etab...), aurreko kontzeptuetan sartu gabeak. Izaera pertsonalekoak izan behar dute eta ezin dira hartu funtzionario multzo baten gastu sozialtzat hartu.

16. ARTIKULUA – ENPLEGU-EMAILEAREN KONTURAKO KUOTAK, PRESTAZIOAK ETA GIZARTE GASTUAK.

160. kontzeptua – Gizarte kuotak.

Kontzeptu honek barruan hartzen ditu entitate enplegu-emaileak bere zerbitzupeko langileen Gizarte Segurantzako eta aurreikuspen sistemetako kuotak ordaintzeko bideratzen dituen kredituak.

160.01. azpikontzeptua – Gizarte Segurantza.

160.09. azpikontzeptua – Bestelakoak.

161. kontzeptua – Gizarte prestazioak.

161.01. azpikontzeptua – Klase pasiboak.

Indarrean dagoen araudiaren arabera, klase pasiboak ordaindu beharreko pensioen osagarriak edo hobekuntzak.

Modu pertsonalean ematen diren aparteko pensioak: pensiodunen familia-osagarria, pensiodunen beste gastu sozial batzuk.

161.02. azpikontzeptua – Erretiro aurreratuen kalte-ordainak.

Barruan hartzen ditu langileen erretiro aurreratuagatik ordaindu behar diren kalte-ordainak aurre egiteko kredituak.

161.09. azpikontzeptua – Beste gizarte prestazio batzuk.

Con cargo a este concepto se recogen las contribuciones a los planes de pensiones del personal empleado de la Diputación Foral de Gipuzkoa o del organismo autónomo.

Concepto 159 – Otras retribuciones en especie.

Cualquier crédito destinado a satisfacer al personal determinadas retribuciones en especie (vivienda, gastos de funcionamiento de la vivienda, billetes de medios de locomoción, indemnizaciones por vestuario en los casos en que sea procedente, etc.) que tengan carácter personal y no puedan ser consideradas como gastos sociales de un conjunto del personal, y no estén incluidas en los conceptos anteriores.

ARTÍCULO 16 – CUOTAS, PRESTACIONES Y GASTOS SOCIALES A CARGO DEL ENTE EMPLEADOR.

Concepto 160 – Cuotas sociales.

Recoge los créditos destinados a satisfacer las cuotas a cargo del Ente empleador, a los regímenes de la Seguridad Social y de previsión del personal a su servicio.

Subconcepto 160.01 – Seguridad Social.

Subconcepto 160.09 – Otras.

Concepto 161 – Prestaciones sociales.

Subconcepto 161.01 – Clases pasivas.

Complementos o mejoras de pensiones que con arreglo a la normativa vigente, corresponda abonar en favor de sus clases pasivas.

Pensiones excepcionales otorgadas a título personal, complemento familiar de pensionistas; otros gastos sociales de pensionistas.

Subconcepto 161.02 – Indemnizaciones por jubilaciones anticipadas.

Recoge los créditos destinados a satisfacer las indemnizaciones por jubilación anticipada del personal a su servicio.

Subconcepto 161.09 – Otras prestaciones sociales.



162. kontzeptua – Gizarte gastuak.

162.01. azpikontzeptua – Laguntza mediko-farmazeutikoa.

Langileen osasun eta botika gastuak, gizarte aurreikuspeneko erregimenek estali ez eta Gipuzkoako Foru Aldundiak edo organismo autonomoak bere gain hartzen dituenak.

162.02. azpikontzeptua – Aseguru pribatuak.

Gipuzkoako Foru Aldundiko edo organismo autonomoko langileen bizitza aseguruak, erantzukizun zibilekoak eta istripuen aurkakoak ordaintzeko kredituak biltzen ditu.

162.09. azpikontzeptua – Beste gizarte gastu batzuk.

Aurreko azpikontzeptuetan sartzen ez den beste edozein gastu.

II. KAPITULUA: ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK

Kapitulu honetan sartzen dira Gipuzkoako Foru Aldundiaren edo organismo autonomoaren jarduerak garatzearen ondasun eta zerbitzuetan egin behar diren gastuak, kapital edo ondare publikoa handitzea ez dakartenak.

Ondasunak eskuratzeko gastuak kapitulu honetako kredituei egotzi dakizkieke baldintza hauetakoren bat betez gero:

- a) Ondasunak suntsikorak izatea.
- b) Aurrekontu ekitaldiak baino gutxiago iraungo dutela aurreikustea.
- c) Ez izatea inbentarioan sartzeko modukoak.
- d) Gastuak errepikatu daitezkeela aurreikustea.

Gainera, kapitulu honi aplikatuko zaizkio izaera immaterialeko gastuak, errepikatu daitezkeenean, amortizagarriak ez direnean eta inbertsioak egitearekin zuzenean loturik ez daudenean.

20. ARTIKULUA – ERRENTAMENDUAK ETA KANONAK.

Barruan sartzen dira, besteak beste, terreno, eraikin eta lokalen errentamendua, ekipa

Concepto 162 – Gastos sociales.

Subconcepto 162.01 – Asistencia médico-farmacéutica.

Gastos médico-farmacéuticos del personal, no cubiertos por los regímenes de previsión social, y asumidos por la Diputación Foral de Gipuzkoa o el organismo autónomo.

Subconcepto 162.02 – Seguros privados.

Recoge los créditos destinados a seguros de vida, responsabilidad civil, accidentes del personal de la Diputación Foral de Gipuzkoa o del organismo autónomo.

Subconcepto 162.09 – Otros gastos sociales.

Cualquier otro que no tenga cabida en los subconceptos anteriores.

CAPÍTULO II: GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS

Este capítulo comprende los gastos en bienes y servicios necesarios para el ejercicio de las actividades de la Diputación Foral de Gipuzkoa o del organismo autónomo que no produzcan un incremento del capital o del patrimonio público.

Serán imputables a los créditos de este capítulo los gastos originados para la adquisición de bienes que reúnan alguna de las siguientes características:

- a) Ser bienes fungibles.
- b) Tener una duración previsiblemente inferior al ejercicio presupuestario.
- c) No ser susceptibles de inclusión en inventario.
- d) Ser gastos que previsiblemente sean reiterativos.

Además, se aplicarán a este capítulo los gastos de carácter inmaterial que puedan tener carácter reiterativo, no sean susceptibles de amortización y no estén directamente relacionados con la realización de las inversiones.

ARTÍCULO 20 – ARRENDAMIENTOS Y CANONES.

Incluye, entre otros, el arrendamiento de terrenos, edificios y locales, el alquiler de equipos



informatikoen eta datu igorpenerako ekipoen alokairua, makinaren eta garraio-materialaren alokairua, eta, egonez gero, "leasing" modalitatean hitzartutako gastuak, betiere azken horietan erosteko aukera erabili behar ez bada. Foru Aldundiak edo organismo autonomoak zuzenean abonatu behar dizkio hirugarrengoiari gastu horiei dagozkien ordainketak.

200. kontzeptua – Terrenoak eta ondasun naturalak.

Orubeen, landa lurreko finken eta bestelako errentamenduak dakartzan gastuak.

201. kontzeptua – Eraikinak eta bestelako eraikuntzak.

Eraikinak eta bestelako eraikuntzak, hala nola zerbitzu prestazioetarako eraikinak, ikuskizunetarako aretoak, museoak edo biltegiak, errentan hartzeko izenpetutako kontratuengandako gastuak, nahiz eta kontratu horien barruan zerbitzu konexoak jasota egon (berogailua, hozkuntza, ura, argia, aseguruak edo garbiketak). Era berean, kontratuak esaten badu ente errentariaren kargura joan behar dutela, barruan sartuko dira bai komunitate gastuak eta bai ondasun higiezin gainerako zerga.

202. kontzeptua – Makineria, instalazioak eta tresneria.

Oro har, mota horretako gastuak, barruan sartuta inbertsioak artatu eta konpontzeko erabilitako makina eta ekipoen errentamenduagatik sortutakoak.

203. kontzeptua – Garraio-materiala.

Pertsonak edo merkantziak garraiatzeko erabiltzen diren era guztietako ibilgailuen alokairu gastuak.

204. kontzeptua – Altzariak eta lanabesak.

Altzariak, bulegoko ekipoenak, materiala eta abar alokatzeko gastuak.

205. kontzeptua – Informazioa prozesatzeko ekipoenak.

Honako hauek alokatzeak dakartzan gastuak:

informáticos y de transmisión de datos, el alquiler de maquinaria y de material de transporte, así como también, en su caso, los gastos concertados bajo la modalidad de leasing, siempre que no se vaya a ejecutar la opción de compra. Los pagos correspondientes a estos gastos deben ser satisfechos directamente al tercero por parte de la Diputación Foral de Gipuzkoa o del organismo autónomo.

Concepto 200 –Terrenos y bienes naturales.

Gastos por arrendamientos de solares, fincas rústicas y otros.

Concepto 201 – Edificios y otras construcciones.

Gastos derivados de los contratos de alquiler de edificios y otras construcciones, entre los que se incluyen, a título indicativo, edificios para prestación de servicios, salas de espectáculos, museos o almacenes, aunque en los contratos correspondientes vayan incluidos servicios conexos (calefacción, refrigeración, agua, alumbrado, seguros o limpieza). Asimismo, se incluirán los gastos de comunidad, así como el Impuesto sobre de Bienes Inmuebles cuando se establezca en el contrato con cargo al ente arrendatario.

Concepto 202 – Maquinaria, instalaciones y utillaje.

Gastos de esta índole en general, incluidos los gastos de alquiler de maquinaria y equipo empleado en conservación y reparación de inversiones.

Concepto 203 – Material de transporte.

Gastos de alquiler de vehículos de toda de todas clases utilizables para el transporte de personas o mercancías.

Concepto 204 – Mobiliario y enseres.

Gasto de alquiler de mobiliario, equipos de oficina, material, etc.

Concepto 205 – Equipos para procesos de información.

Gastos derivados del alquiler de equipos



ekipo informatikoak, datuak transmititzekoak eta beste ekipo berezi batzuk, sistema eragileak, datu baseak kudeatzeko aplikazioak, eta beste edozein motatako ekipo informatikoak eta softwareak.

206. kontzeptua – Bestelako ibilgetu materiala.

Aurreko kontzeptuetan sartu gabeko beste ondasun batzuen errentamendua.

209. kontzeptua – Kanonak.

Ondasun bat lagatzeagatik, jabetza industrial erabiltzeagatik eta bestelako ondasun material edo immaterialak erabiltzeagatik aldiro-aldiro ordaintzen diren zenbatekoak.

21. ARTIKULUA – KONPONKETA, MANTENIMENDUA ETA ARTAPENA.

Artikulu honi egotziko zaizkio azpiegiturak, eraikinak eta lokalak, makineria, garraio-materiala eta bestelako ibilgetu materiala mantendu eta artatzeko gastuak, jarraian adierazten diren kontzeptuen arabera zehaztuak.

Kapital-ondasunen artapen, mantenimendu edo konponketan sortzen diren konponketa eta berreraikuntza lanetarako kredituak artikulu honen barruan jasoko dira.

Arau orokor gisa, tamaina handiko konponketek ondasunaren edukiera, errendimendua, efizientzia edo balio bizitza handitzen badute, inbertsio errealean 6. kapitulari egotziko zaizkio.

210. kontzeptua – Terrenoak eta ondasun naturalak.

Terrenoak eta ondasun naturalak mantendu eta artatzeko gastuak.

211. kontzeptua – Eraikinak eta bestelako eraikuntzak.

Higiezinak artatu eta konpontzeko gastuak, izan higiezinak propioak, izan errentan hartuak.

212. kontzeptua – Makineria, instalazioak eta tresneria.

Makinak, instalazioak eta tresnak konpondu, artatu eta mantentzeko gastuak.

informáticos, de transmisiones de datos y otros especiales, sistemas operativos, aplicaciones de gestión de base de datos y cualquier otra clase de equipos informáticos y de «software».

Concepto 206 – De otro inmovilizado material.

Arrendamiento de bienes diversos no incluido en los conceptos precedentes.

Concepto 209- Cánones.

Cantidades satisfechas periódicamente por la cesión de un bien, el uso de la propiedad industrial y la utilización de otros bienes de naturaleza material o inmaterial.

ARTÍCULO 21 – REPARACIÓN, MANTENIMIENTO Y CONSERVACIÓN.

Se imputarán a este artículo los gastos de mantenimiento y conservación de infraestructuras edificios y locales, maquinaria, material de transporte y otro inmovilizado material, desglosados en los conceptos que a continuación se detallan.

Los créditos para obras de reparación y reconstrucción que se originen en la conservación, mantenimiento y reparación de los bienes de capital se recogerán en este artículo.

Como norma general las reparaciones importantes que supongan un aumento de capacidad, rendimiento, eficiencia o alargamiento de la vida útil del bien se imputarán al capítulo 6, inversiones reales.

Concepto 210 – Terrenos y bienes naturales.

Gastos de mantenimiento y conservación de terrenos y bienes naturales.

Concepto 211 – Edificios y otras construcciones.

Gastos de conservación y reparación de inmuebles ya sean propios o arrendados.

Concepto 212 – Maquinaria, instalaciones y utillaje.

Gastos destinados a reparaciones, conservación y mantenimiento de máquinas, instalaciones y utillaje.

Orobat, barruan sartuko dira instalazio teknikoak konpondu, mantendu eta artatzeko gastuak, halako instalaziotzat hartuta eraikuntza, makina eta elementuen unitate konplexuak, erabilera espezializatukoak, sistema informatikoak ere barne, zeinak, bereiz egon badaitezke ere, funtzionatzeko garaian loturik baitaude behin betiko, eta amortizazio erritmo bera aplikatzen baitzaie. Instalazio horietarako bakarrik balio duten ordezkoko piezak ere sartzen dira.

Azkenik, kontzeptu honetan sartuko dira tresneria konpondu, mantendu eta artatzeko egiten diren gastuak, tresneriatzat hartuta, horrelakoetan, makinekin batera erabil daitezkeen lanabesak edo tresnak, baita moldeak eta txantiloak ere.

213. kontzeptua – Garraio-materiala.

Ibilgailuak berrikusi, konpondu, mantendu eta artatzeko gastuak.

Hemen jasotzen dira pertsonak, animaliak, materialak eta merkantziak lehorretik, itsasoz edo airez garraiatzeko erabiltzen diren ibilgailuak, salbu 212. kontzeptuan ("Makineria, instalazioak eta tresnak") sartu behar direnak.

214. kontzeptua – Altzariak eta lanabesak.

Altzariak, materialak eta bulegoko ekipoak konpondu, mantendu eta artatzeko gastuak, salbu 215. kontzeptuan ("Informazioa prozesatzeko ekipoak") sartu behar direnak.

215. kontzeptua – Informazioa prozesatzeko ekipoak.

Ordenagailuak eta bestelako ekipo elektronikoak (komunikaziokoak edo datuak prozesatzekoak) konpondu, mantendu eta artatzeko gastuak.

219. kontzeptua – Bestelako ibilgetu materiala.

Aurreko kontzeptuetan sartu ez diren bestelako elementuak konpondu, mantendu eta artatzeko gastuak.

22. ARTIKULUA – MATERIALA, HORNIGAIK ETA BESTELAKOAK.

Asimismo, se incluirán los gastos de reparaciones, mantenimiento y conservación de instalaciones técnicas, entendidas como unidades complejas de uso especializado comprensivas de edificaciones, maquinaria, elementos, incluidos los sistemas informáticos, que aun siendo separables por naturaleza, están unidos de forma definitiva para su funcionamiento y están sometidos al mismo ritmo de amortización. Se incluyen los repuestos o recambios válidos exclusivamente para estas instalaciones.

Por último, se recogerán en este concepto los gastos de reparaciones, mantenimiento y conservación del utillaje, definido como conjunto de utensilios o herramientas que se pueden utilizar con la maquinaria, incluidos los moldes y plantillas.

Concepto 213 – Material de transporte.

Gastos de revisión, reparaciones, mantenimiento y conservación de vehículos.

Se incluyen vehículos destinados al transporte terrestre, marítimo o aéreo de personas, animales, materiales o mercancías, excepto los que se deban recoger en el concepto 212, «Maquinaria, instalaciones y utillaje».

Concepto 214 – Mobiliario y enseres.

Gastos de reparaciones, mantenimiento y conservación de mobiliario, material y equipos de oficina, con excepción de los que deben figurar en el concepto 215, «Equipos para procesos de información».

Concepto 215 – Equipos para procesos de información.

Gastos de reparaciones, mantenimiento y conservación de ordenadores y demás conjuntos electrónicos de comunicaciones y de procesos de datos.

Concepto 219 – De otro inmovilizado material.

Gastos de reparaciones, mantenimiento y conservación de otros elementos no incluidos en los conceptos precedentes.

ARTÍCULO 22 – MATERIAL, SUMINISTROS Y OTROS.



220. kontzeptua – Bulegoko materiala.

Izaera hori duten gastuak, jarraian zenbakitutako azpikontzeptuen arabera sailkatuak.

220.01. azpikontzeptua – Inbentariagarria ez den material arrunta.

Bulegoko material ez-inbentagarrian egindako gastu arruntak. Kontzeptu honi egotziko zaio bulegoko material espezifiko eskuratzea, hala nola papera, bolígrafoak, etab...

220.02. azpikontzeptua – Prentsa, aldizkariak, liburuak eta bestelako argitalpenak.

Hemen sartzen dira argitalpenak, aldizkariak eta antzeko beste batzuk eskuratzeko gastuak, baita liburuak eskuratzekoak ere, horiek inbentarioan sartzekoak ez direnean.

220.03. azpikontzeptua – Material informatiko ez inbentariagarria.

Ekipo informatikoak, transmisio ekipoak eta bestelakoak normal funtzionatzeko materialean egindako gastuak, esate baterako, euskarri fisikoak edo "software paketeak" eskuratzekoak.

221. kontzeptua – Hornidurak.

Higiezinen erabilerarekin lotuta dauden gastuak hartuko ditu, baita zerbitzuen funtzionamendurako beharrezkoak diren lehengaien edo material berezien erosketak ere, baldin eta alokairuen prezioaren barruan sartzen ez badira.

221.01. azpikontzeptua – Erregaiak eta gasa.

Eraikin eta antzekoetan erregaiak eta gasa kontsumitzeko gastuak.

221.02. azpikontzeptua – Energia elektrikoa.

Energia elektrikoaren gastuak.

221.03. azpikontzeptua – Ura.

Ur eta saneamendu gastuak.

221.04. azpikontzeptua – Jantziak eta uniformeak.

Funtzionarioek, lan kontratadunek edo bestelako

Concepto 220 – Material de Oficina.

Gastos de esta naturaleza, clasificados según se recoge en los subconceptos que se enumeran a continuación.

Subconcepto 220.01 – Material ordinario no inventariable.

Gastos ordinarios de material de oficina no inventariable. Se imputarán a este concepto la adquisición de material específico de oficina, tales como papel, bolígrafos, etc.

Subconcepto 220.02 – Prensa, revistas, libros y otras publicaciones.

Incluye gastos de adquisiciones de publicaciones, revistas y otros similares, así como de libros cuando no proceda su inclusión en el inventario.

Subconcepto 220.03 – Material informático no inventariable.

Gastos de material para el normal funcionamiento de equipos informáticos, transmisión y otros, tales como adquisición de soportes físicos o «paquetes de software».

Concepto 221 – Suministros.

Incluirá los gastos asociados al uso de inmuebles, así como las compras de materias primas o materiales especiales, necesarios para el funcionamiento de los distintos servicios, siempre que no estén comprendidos en el precio de los alquileres.

Subconcepto 221.01 – Combustible y gas.

Gastos de combustible y gas en edificios y análogos.

Subconcepto 221.02 – Energía eléctrica.

Gastos de energía eléctrica.

Subconcepto 221.03 – Agua.

Gastos de agua y saneamiento.

Subconcepto 221.04 – Vestuario y uniformes.

Vestuario y otras prendas de dotación obligada por



langileek lege, erregelamendu, hitzarmen, akordio edo kontratuan hala ezartzeagatik nahitaez eraman beharreko jantziak.

221.05. azpikontzeptua – Elikagaiak.

Barruan sartzen dira establezimendu edo zerbitzu ezberdinetan (jantoki, udaleku, egoitza eta abarretan) pertsonen mantenua egiteko sortzen gastuak, elikagaiak edo edariak entitateak berak eskuratzen dituztenak.

221.06. azpikontzeptua – Sukaldeko tresneria.

Baxera, mahai-tresnak, sukaldeko tresneria eta abar erosteko gastuak hartzen ditu, inbentarioan aldaketarik ez dakartenean.

221.07. azpikontzeptua – Makina, tresna eta garraio-elementuetarako ordezkoko piezak.

Makina, tresna eta garraio-elementuetarako ordezkoko pieza ez inbentagarrien gastuak hartzen ditu.

221.08. azpikontzeptua – Botikako produktuak eta material sanitarioa.

Pertsona zein animalientzat erosten diren botikako produktuen gastuak hartzen ditu, baita inbentariagarria ez den material sanitarioarenak ere, I. kapituluan aplikatu behar ez badira.

221.09. azpikontzeptua – Garbitzeko eta txukuntzeko produktuak.

Garbitzeko eta txukuntzeko materialaren erosketak dakartzan gastuak hartzen ditu.

221.10. azpikontzeptua – Inprimakiak.

Inprimaki administratiboen gastuak, zerga inprimakiak barne.

221.11. azpikontzeptua – Material bereziak.

Barruan hartzen ditu Gipuzkoako Foru Aldundiaren edo organismo autonomoaren zerbitzuen funtzionamendurako beharrezkoak diren material edo lehengaiak eskuratzeko kredituak.

221.12. azpikontzeptua – Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzako produktuak.

imposición legal, reglamentaria, por convenio, acuerdo o contrato para personal funcionario, laboral y otro personal.

Subconcepto 221.05 – Productos alimenticios.

Se incluyen gastos de alimentación de personas en los distintos establecimientos o servicios (comedores, colonias veraniegas, residencias, etc.) siendo adquiridos los artículos alimenticios o bebidas por la propia entidad.

Subconcepto 221.06 – Menaje doméstico.

Comprende los gastos para la adquisición de vajilla, cubiertos, utensilios de cocina, etc., y que no impliquen modificaciones en el inventario.

Subconcepto 221.07 – Repuestos maquinaria, utillaje y elementos de transporte.

Comprende los gastos de adquisición de repuestos de maquinaria, utillaje y elementos de transporte no inventariables.

Subconcepto 221.08 – Productos farmacéuticos y material sanitario.

Comprende los gastos de adquisición de productos farmacéuticos, tanto para personas como para animales, así como el material sanitario no inventariable, que no corresponda su aplicación al capítulo I.

Subconcepto 221.09 – Productos de limpieza y aseo.

Comprenderá los gastos de adquisición de material de limpieza y aseo.

Subconcepto 221.10 – Impresos.

Gastos de impresos administrativos, incluidos los tributarios.

Subconcepto 221.11 – Materiales especiales.

Comprende los créditos precisos para adquisición de materiales o materias primas necesarias para el funcionamiento de los distintos servicios de la DFG o del organismo autónomo.

Subconcepto 221.12 – Productos agrarios, ganaderos y forestales.



Barruan hartzen ditu nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzarako produktuen hornidura (ongarriak, izurrien tratamendurako produktu kimikoak), zuhaitz eta landareen erosketa, abereentzako janari eskurapena, eta abar.

221.13. azpikontzeptua – Material elektriko, elektronikoa eta komunikazioetakoak.

Barruan hartzen ditu telekomunikazio zerbitzuetarako horniketak eta ordezeko piezak: irrati ekipokoak, zentralakoak, teleinprimagailuetakoak,... Argiztapen ekipoen ordezeko piezak. Telefonoak, irratitelefonoak, telexak eta telefaxak konpontzeko erremintak eta ordezeko piezak. Datu sare, segurtasun eta abarretarako material elektrikoa.

221.14. azpikontzeptua – Kirol materiala, eta material didaktiko eta kulturala.

Barruan hartzen ditu kirol esparrukoak diren produktu edo material bereziak erosteko gastuak, esate baterako trofeoak, balioak, etab... eskuratzekoak, baita kultur zerbitzuek berezkoa duten material suntsikorra erostekoak ere.

221.99. azpikontzeptua – Bestelako hornidura batzuk.

Aurreko azpikontzeptuetan sartzen ez diren beste gastu guztiak sartzen dira hemen.

222. kontzeptua – Komunikazioak.

Telefonia, posta, telegrafia, edo informatika zerbitzuengatik eta beste edozein komunikazio motagatik sortzen diren gastuak hartzen ditu, mezularitza zerbitzukoak ere barne.

222.01. azpikontzeptua – Telekomunikazio zerbitzuak.

222.02. azpikontzeptua – Mezularitzakoak.

222.03. azpikontzeptua – Telegrafikoak.

222.04. azpikontzeptua – Postakoak.

222.09. azpikontzeptua – Bestelako komunikazio gastuak.

223. kontzeptua – Garraioak.

Comprende el suministro de productos agrarios, ganaderos y forestales, como puede ser el suministro de abonos, productos químicos para el tratamiento de plagas, compra de plantas y árboles, artículos alimenticios para animales, etc.

Subconcepto 221.13 – Material eléctrico, electrónico y de comunicaciones.

Comprende los repuestos y suministros para el servicio de telecomunicaciones: de equipos de radio, centrales, teleimpresos, etc. Repuestos de equipos de iluminación. Herramientas y repuestos para reparación de teléfonos, radioteléfono, télex y telefax. Material eléctrico para la red de datos, seguridad, etc.

Subconcepto 221.14 – Material deportivo, didáctico y cultural.

Comprende los gastos de adquisición de productos o materiales característicos del área de deportes, como pueden ser trofeos, balones, etc, así como material fungible característico de los servicios de cultura.

Subconcepto 221.99 – Otros suministros.

Se incluyen aquí aquellos otros gastos que no tengan encaje en ninguno de los subconceptos anteriores.

Concepto 222 – Comunicaciones.

Comprende los gastos por servicios telefónicos, postales, telegráficos, comunicaciones informáticas, así como cualquier otro tipo de comunicación, incluidos los de mensajería.

Subconcepto 222.01 – Servicios de telecomunicaciones.

Subconcepto 222.02 – Mensajería.

Subconcepto 222.03 – Telegráficas.

Subconcepto 222.04 – Postales.

Subconcepto 222.09 – Otros gastos de comunicación.

Concepto 223 – Transportes.



223.01. azpikontzeptua – Bertako ibilgailuak.

Edozein motatako ibilgailuan gasolina, gasolioa, fuel-olioa, koipeak, lubrifikatzaileak, gehigarriak eta antzekoak erabiltzeak dakartzan gastuak.

Barruan sartzen dira autopistako gastuak, VIA-T tele-ordainketa sistemarenak, eta ibilgailu propioak aparkatzeak sortutakoak.

223.02. azpikontzeptua – Kanpoko kontratuak.

Enpresei kontratatzen zaizkien garraio-zerbitzuak. Langileen bidaiak-gastuak direnean, 230 kontzeptuari egotziko zaizkio.

224. kontzeptua – Aseguru primak.

Honelakoak aseguratzeak gastuak: ibilgailuak, ondasun higiezinak, bestelako ibilgetuak eta beste edozein elementu material, estaltzen diren arriskuen izaera edozein dela ere. Kanpoan geratzen dira langileen bizitza edo istripu aseguruak, horiek 1. kapituluko ("Langileria gastuak") 162.02 kontzeptuan ("Aseguru pribatuak") sartuko baitira.

224.01. azpikontzeptua – Eraikin eta lokalak.

224.02. azpikontzeptua – Ibilgailuak.

224.03. azpikontzeptua – Pertsonalak.

224.04. azpikontzeptua – Artelanak.

224.05. azpikontzeptua – Erantzukizun zibila.

224.09. azpikontzeptua – Bestelako arriskuak.

225. kontzeptua – Tributuak.

Tasak, kontribuzioak eta zergak ordaintzeko bideratzen diren gastuak sartuko dira kontzeptu honetan, izan estatukoak, autonomikoak, foralak edo udaletakoak.

225.01. azpikontzeptua – Udaletakoak. Ondasun higiezin propioak edo erabileran.

Bakar-bakarrik Gipuzkoako Foru Aldundiaren edo Organismo Autonomoaren titulartasuneko ondasun higiezinekin edo haiek erabiltzen dituztenekin lotutakoak.

Obren gaineko zerga, hirigintza lizentzia, edo

Subconcepto 223.01 – Vehículos propios.

Gastos de gasolina, gasóleo, fuel-oíl, grasas, lubricantes, aditivos y análogos utilizados en cualquier clase de vehículos.

Se incluyen los gastos de autopista, de VIA-T (sistema de telepeaje) y de parking de vehículos propios.

Subconcepto 223.02 – Contratos exteriores.

Contratación de servicio de transporte a empresas. Cuando se trate de gastos de viajes del personal se imputará al concepto 230.

Concepto 224 – Primas de seguros.

Gastos por seguros de vehículos, de bienes inmuebles, de otro inmovilizado y de cualquier elemento material, cualquiera que sea la naturaleza de los riesgos objeto de cobertura, excepto los seguros de vida o accidente del personal que se incluirán en el Capítulo 1, «Gastos de personal», concepto 162.02, «Seguros privados».

Subconcepto 224.01 – Edificios y locales.

Subconcepto 224.02 – Vehículos.

Subconcepto 224.03 – Personales.

Subconcepto 224.04 – Obras de arte.

Subconcepto 224.05 – Responsabilidad civil.

Subconcepto 224.09 – Otros riesgos.

Concepto 225 – Tributos.

Se incluirán en este concepto los gastos destinados a satisfacer tasas, contribuciones e impuestos, sean estatales, autonómicos, forales o locales.

Subconcepto 225.01 – Locales. Inmuebles propios o en uso.

Exclusivamente los relacionados con la titularidad o el uso de bienes inmuebles por parte de la Diputación Foral o el Organismo Autónomo.

El impuesto de obras, por licencias urbanísticas,



Inbertsioen 6. kapituluan egotzitako edo egotzi beharreko inbertzoekin zer ikusi duen beste edozein zerga, kapitulu berean egotziko dira.

225.02. azpikontzeptua – Udaletakoak. Beste batzuk.

Aurreko azpikontzeptuan tokirik ez duen beste edozein, esate baterako, jardueragatik ordaindu beharreko tasa.

225.03. azpikontzeptua – Foralak.

225.04. azpikontzeptua – Autonomikoak.

225.05. azpikontzeptua – Estatukoak.

225.09. azpikontzeptua – Beste batzuk.

226. kontzeptua – Beste zenbait gastu.

2. kapituluko beste kontzeptuetan sartu ezin diren gastu arrunt guztiak sartuko dira hemen.

226.01. – GLHko protokolo eta ordezkari-tza gastuak.

Azpikontzeptu honi egotziko zaizkio Gipuzkoako Foru Aldundiko edo organismo autonomoko agintariek beren eginkizunen barruan protokolo eta ordezkari-tza egintzak egin behar izateagatik sortzen diren gastuak, betiere baldin eta egintza horiek Gipuzkoako Foru Aldundi osoa edo organismo autonomo osoa ukitzen badute.

226.02. azpikontzeptua – Nahitaezko iragarkiak.

Epigrafe honetan sartuko dira aldizkari ofizialetan edo prentsan nahitaezko iragarkiak argitaratzeak dakartzan gastuak.

226.03. azpikontzeptua – Juridikoak eta administrazioarekiko auzietakoak.

Barruan sartuko dira defentsa juridikorako eta antzeko zereginetarako bideratzen diren gastuak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren edo organismo autonomoaren ondasunak eta eskubideak babesteko beharrezkoak direnean.

226.04. azpikontzeptua – Langileen prestakuntza.

etc. o cualquier otro impuesto relacionado o derivado con una inversión que se impute o haya sido imputado al Capítulo 6 de Inversiones, se deberá imputar al mismo capítulo.

Subconcepto 225.02 – Locales. Otros.

Cualquier otro que no tenga encaje en el anterior subconcepto, como puede ser la tasa por actividad.

Subconcepto 225.03 – Forales.

Subconcepto 225.04 – Autonómicos.

Subconcepto 225.05 – Estatales.

Subconcepto 225.09 – Otros.

Concepto 226 – Otros gastos diversos.

Se incluyen todos aquellos gastos de naturaleza corriente que no tienen cabida en otros conceptos del capítulo 2.

Subconcepto 226.01 – Atenciones protocolarias y representativas del T.H.G.

Se imputarán a este subconcepto los gastos que se produzcan como consecuencia de los actos de protocolo y representación que las autoridades de la Diputación Foral de Gipuzkoa o del organismo autónomo tengan necesidad de realizar en el desempeño de sus funciones y que afecten al conjunto de la Diputación Foral de Gipuzkoa o del organismo autónomo.

Subconcepto 226.02 – Anuncios obligatorios.

Se incluirán en este epígrafe los gastos que ocasione la inserción de anuncios obligatorios en Boletines Oficiales o en prensa.

Subconcepto 226.03 – Jurídicos y contenciosos.

Se incluirán todos los gastos destinados a la defensa jurídica y cualesquiera de naturaleza análoga que sean necesarios para salvaguardar los bienes y derechos de la Diputación Foral de Gipuzkoa o del organismo autónomo.

Subconcepto 226.04 – Formación del personal.



Langileak ikastaro, kongresu, hitzaldi eta bileretan matrikulatzeagatik, baita langileei zuzendutako ikastaroak entitateak berak antolatzeagatik ere, sortzen diren gastuak.

226.05. azpikontzeptua – Eraikinen komunitatea.

Gastu komunetan dagoen partaidetza, eraikinen jabetza eskusiboa ez denean, eta errentan hartutako eraikinetako gastu komunena, gastu horiek alokairuaren prezioan sartuta ez daudenean.

226.06. azpikontzeptua – Zerbitzu publikoen funtzionamenduagatik eman beharreko kalte-ordainak.

Zerbitzu publikoen funtzionamenduagatik ordaindu behar diren kalte-ordainen gastuak, baldin eta beren izaeragatik ez bazaizkio egotzi behar dagokien aurrekontu kontzeptuari.

226.07. azpikontzeptua – Oposizioak eta hautapen probak.

Hautapen probak egiteagatik sortzen diren era guztietako gastuak, salbu eta epai-mahaietan parte hartzeko dietak eta diru-esleipenak, horiek "Zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainak" epigrafeari aplikatuko baitzaizkio.

226.08. azpikontzeptua – Bilerak, hitzaldiak eta ikastaroak.

Hitzaldiak, batzarrak, kongresuak, lan taldeak, mintegiak eta antzeko bilerak antolatu eta egiteko gastuak.

Barruan sartu daitezke aretoak, itzulpen zerbitzuak, laguntzako pertsonak eta parte hartzaileen otorduak alokatzeko gastuak.

Bisita instituzionalengatik edo lan bilera edo lan taldeengatik sortzen diren gastuak, horietan kanpoko pertsonak parte hartzen dutenean eta haien helburua denean departamentuek edo organismo autonomoak normal funtzionatzeko garatu behar diren zereginen inguruko gaiak jorratzea edo koordinatzea.

Pertsonalitateen gonbiteak ez badira egiten

Gastos ocasionados por la matriculación de personal en cursos, congresos, conferencias y reuniones, así como los gastos ocasionados por la organización propia de cursillos dirigidos al personal.

Subconcepto 226.05 – Comunidad de edificios.

Participación en los gastos comunes de los edificios cuya propiedad no sea exclusiva, y de los edificios arrendados cuando no estén incluidos en el precio del alquiler.

Subconcepto 226.06 – Indemnizaciones por el funcionamiento servicios públicos.

Gastos por indemnizaciones a satisfacer como consecuencia del funcionamiento de los servicios públicos, siempre que por su naturaleza no deban imputarse al concepto presupuestario correspondiente.

Subconcepto 226.07 – Oposiciones y pruebas selectivas.

Todo tipo de gastos derivados de la realización de pruebas selectivas, excepto las dietas y asistencias a tribunales que se imputarán a «Indemnizaciones por razón de servicio».

Subconcepto 226.08 – Reuniones, conferencias y cursos.

Gastos de organización y celebración de conferencias, asambleas, congresos, grupos de trabajo, seminarios, y convenciones y reuniones análogas.

Pueden incluirse gastos de alquiler de salas, traductores, personal de apoyo y auxiliar y comidas de asistentes.

Gastos derivados de visitas institucionales o de reuniones o grupos de trabajo en que participen personal ajeno para tratar o coordinar aspectos relacionados con el desempeño de las funciones propias o necesarias para el normal funcionamiento de los departamentos o del organismo autónomo.

En caso de que las invitaciones de personalidades



hiltzadiak, mintegiak edo aipatu diren bestelakoak antolatzeagatik, 226.01 azpikontzeptuari ("Protokolo eta ordezkariak gastuak") egotziko zaizkio.

Irakasleen mantenu, ostatu eta lokomozio gastuak, irakasleei zuzenean ordaindu beharrean zerbitzua ematen duen establezimendu edo enpresarekin kontratatzen direnak eta ikastaroaren kostuaren parte bat eratzen dutenak.

Bilerak eta hitzaldiak antolatzeak dakartzan garraio, jatxete eta ostatu gastuak 23. artikuluari egotziko zaizkio ("Zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainak").

Ikastaro eta mintegiak egiteagatik sortzen diren gastuak, hala nola materialarenak eta unitate didaktikoenak.

226.09. azpikontzeptua – Departamentuen protokolo eta ordezkariak gastuak.

Azpikontzeptu honi egotziko zaizkio departamentuek beren eginkizunen barruan protokolo eta ordezkariak egintzak egin behar izateagatik sortzen diren gastuak, betiere baldin eta egintza horiek departamentua ukitzen badute.

226.10. azpikontzeptua – Beste zenbait gastu.

Aurreko azpikontzeptuetan sartzen ez diren beste gastu batzuk.

227. kontzeptua – Profesional edo enpresa espezializatuek egindako lanak.

Hemen sartuko dira Gipuzkoako Foru Aldundiaren edo organismo autonomoaren eskumeneko jardueri dagozkien gastuak, baldin kanpoko enprekin edo profesional independenteekin kontratatuz exekutatu badira.

227.01. azpikontzeptua – Azterlanak eta irizpenak.

Enpresa espezializatuei, profesional independentei edo adituei aginduta egiten diren azterlan, lan tekniko, estatistiko edo bestelakoak, inbertsio planei, programei, aurreproiektuei eta proiektuei aplikatzen ez zaizkienean; horrelakoetan, 6. kapituluaren sartuko

